

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA: ANIA MINER
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Ultzama (Nafarroa)

Orgi, zentzumenen basoa

Nafarroako Ultzama bailararen erdian, Orgi basoko labirinto ilunean barrena, euskaldunontzat mendetan zehar hain ezagunak izan diren landare eta animaliak beste era batera sumatzeko bidea aurkituko dugu. Begiak itxita egiteko bidea da, ikusmenaren ordeztu beste zentzumena erabiltzera behartuta daudenentzat bereziki atondua.

Orgiko basoa 80 hektareako hariztia da. Oinez ibiltzeko bideak berriz, bi kilometro eta erdiko azalera du. Ultzama bailaran dago, Iruñetik 30 kilometro. Soroz inguratua, aizkolarien egur gosetik eta nekazarien landatze asmoetatik ihesi dabilen antzinako mundua da, aire garbia, isiltasuna eta lasaitasun apur bat oparitutako dizkiguna, guk errespetuz tratatzen badugu

behintzat. Eta agian, begiak ordu erdi batez ezkututzen baditugu betazal azpian, txantxangorriaren kantua eta pare bat ipotx edo lamiren aztarnak sumatzeko gai izango gara.

Hariztia hiru zatitan banatua dago: harrera gunea, ibilbidea, eta errepideaz bestalde dagoen erreserba. Den-dena, Arkil eta Ultzama erreken artean kokatuta. Horrega-

tik, Orgiko basoa oso toki hezea da, ur putzuz betea. Inguru horretan, haritzarekin batera azaltzen diren landare asko jaio dira, zoru osoa estaliz.

Horrek ibilbidean arazo ugari sortu zituen hasieran, egun euritsuetan bide guztiak ur azpian gelditzen ziren eta. Irtenbidea emateko, putzu gehien sortzen ziren lekuetan egu-

rrrezko zubiak eraiki zituzten, urak bidea estali ez zezan.

Ultzama bailara zeharkatzen duen errepedeari jarraituz, Lizaso herrira iritsi aurretik ikusiko dugun bidegurutzeak zuzen-zuzenean Orgiko harrera gunearen ondoan dagoen aparkalekura eramango gaitu, eta han, bat-batean bi zaldirekin topo egingo dugu. Lagun berri horiei esker, eta gure arbasoek erabiltzen zuten garraibidea gustuko baduzue, gurdiz egin daiteke ibilaldia.

Begirik gabe basoan barrena

Baina gaurko helburua, esan dugun bezala, begiak lotan utzi eta basoko labirintoan barrena bidaiatzea izango da. Ezintasunen bat daukaten pertsonentzat egina dago labirintoa: itsuentzako azalpen irudiak eta bidea jarraitzeko sokak daude, eta lurra oso lau denez, gurpildun aulkia erabiltzen dutenak ere atsegin handiz igaro daitezke ibilbide osotik.

300 metro dituen bide zabal batean sartuko gara soka bat gidari dugula. Eskuin-ekzerrean zuhaitz, landare eta beste zenbait bizidunen mundua gehiago ezagutzeko azalpen kartelak aurkituko ditugu, beraien artean metro bateko tarte dagoela.

Oihanaren egitura konplexua antzematen dugu. Eskuak luzatuz ikusiko dugu bidea tunela dela, zuhaixkak eta zuhaitzetako enborrek, adarrek eta hostoek osatutako tunela. Lurretik gora egiten dute, hainbat bizigiro eta bizimodu sortuz. Oihanaren barnean, hozberoa leundu eta kanpoko hotsak gutxitu egiten dira.

Enbor-hostoak behatz puntez ikusten

Labirintoan sartu orduko, haritz amerikar bat dago eskuinaldean. Modu

desberdinean begiratuiko diogu: behatz puntekin. Hala ikusiko dugu bertoko haritza baino enbor leunagoa duela, gorputzean dituen pitzadurak azalekoak dira, hostoak berriz borobil formakoak. Hemengo haritza baino azkarrago hazten da, horregatik ekarri zuten bere etxetik hain urrun. Hala ere, ez da oso ongi egokitu gure oihane-
ra, lurra oso buztintsua baita, eta putzuak erraz sortzen direnez, sustraiek arnasa hartzeko arazoak izaten dituzte.

Bidean aurrera jarraitu ahala, sokak eusten dituzten makilen inguruan hosto eta adaxkak aurkituko ditugu. Landare igokari hori zuntza da, eta Orgiko basoan hiru zuhaitzetik bitan aurkitu dezakegu. Bi hosto klase ditu. Bata, malko formakoa, zuntzaren beheko aldean egoten da, normalean zuhaitzaren atzeko aldean. Bestea, triangelu antzekoa, zuntzaren goiko atalean agertzen da, zuhaitzaren enborraren bueltan, eguzki printzak harripatzeko irrikan balego bezala.

Txorien kantua

Ibilian-ibilian, basoan barneratuz, kanpoko soinuak atzean uzten joango gara, errepedeko autoen burrunben ordeztu txorien kantu goxoez beteko zaigu bihotza. Une batez gelditzen bagara, erraz entzun diegu hegaztiei.



Txorien kantuak etengabeko bidaide izango ditugu zentzumenen ibilaldi honetan.

Beheko aldeko adarretan hamabost zentimetro inguru dituen txoritxo dago. Haren kantuak entzunda azkar konturatuko gara txantxangorria dela. Goiko adarretan berriz, txori handixeago bat aurkituko dugu; buztan motza du, gorputzaren goiko alde nabarra eta behekoa pikardatua. Birigarroa.

Txangoa bukatuta, behatz punten, entzumenaren eta usaimenaren bitartez ikusi ditugunak arimaren sakonean gordeak daudela sentituko dugu, mendetan zehar euskaldunok Ama Naturarekin izan dugun harreman estuaren jarraikideak garela nabaritzen. ■



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com



Arbelaitz Jatetxea